

Proiektuetarako jarduerak 1. Blokea: Segurtasuna sarean eta pentsamendu kritikoa aro digitalean.

## Ziberjazarpenaren kontra borrokatzea




Adina 9 - 12 urte artean



Zailtasun-maila: aurreratua



Denboralizazioa: 10 saio



**Etiketak:** Zibersegurtasuna (e-safety), Internet, ziberjazarpena.

### JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Ikasleek bideo kolaboratibo bat sortuko dute abesti eta pankartekin, eta horiek ere elkarlanean egingo dituzte. Haietan, ziberjazarpenaren aurka borrokatzeko mezuak erakutsiko dituzte.

### HELBURUAL

- Portaera zibikoa, tolerantzia eta errespetua sustatzea ikasleen artean.
- Gure ikasleen adinean ziberjazarpenak duen garrantziaz jabetzea eta berdinen arteko jarrera enpatikoak garatzea
- Elkarlana sustatzea eta tresna digitalak ongi erabiltzea, kide diren herrialdeetako ikasleen arteko benetako komunikazioaren bidez, azken produktu komun bat sortzeko.

### GAKO KONPETENTZIAK ETA ZEHARKAKO GAIAK

- Konpetentzia digitala
- Hizkuntza-komunikazioa
- Ikasten ikasteko konpetentzia
- Konpetentzia kultural eta artistikoa
- Konpetentzia sozial eta zibikoak
- Heziketa zibikoa
- Berdintasunerako heziketa

### CURRICULUMENKO EDUKIAK

- Tresna digitalak arduraz erabiltzea
- Elkarlana
- Ziberjazarpeneko portaera desegokiak identifikatzea, haien balorazio kritikoa egitea eta jokabide horiek edozein egoeratan gaitzestea.
- Tolerantzia, errespetua eta enpatiaren gisako balioak
- Errima teknika artistiko gisa rap abestietan

## **INKLUSIO-ALDERDIAK**

Ikasleen arteko berdintasuna landuko da, eta nazioarteko talde misto eta orekatuak sortuko dira horretarako.

## **AURREIKUSTEN DIREN PRODUKTUAK / EMAITZAK**

Bideo kolaboratibo bat, non musika rap abesti bat izango den, eta irudietan ikasleak agertuko diren, elkarlanean egindako pankartak erakusten dituztela.

## **JARDUERAREN GARAPENA**

### **ALDEZ AURRETIKO PRESTAKUNTZA**

#### **1. fasea. TwinSpace sortzea.**

Irakasleek bilera bat egingo dute eTwinning Live ekitaldi baten bidez, lan-irizpideak, lan-egutegia eta ikasleek lan egiteko eta gainerako kideekin lankidetzan aritzeko erabiliko dituzten tresna digitalak finkatzeko. Ondoren, TwinSpace-n hainbat orrialde sortuko dituzte lan hori jasotzeko. Kasu honetan, zazpi orrialde proposatzen dira:

1. Gure burua aurkezten dugu.
2. Zer da ziberjazarpena?
3. Nazioarteko taldeak osatuko ditugu
4. Errimatzen duten mezuak sortu eta audioan grabatuko ditugu
5. Hona hemen ziberjazarpenaren kontra borrokatzeko egin dugun bideoa
6. Ebaluazioa
7. Jakitera ematea

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)



Tutoriala: [Nola sortu orri bat TwinSpace-n](#)

## 2. fasea. Ikasleak TwinSpace-ra gonbidatzea.

Irakasleek haien ikasleak TwinSpace-n erregistratuko dituzte.



Tutoriala: [Nola gonbidatu ikasleak TwinSpace-ra](#)

## 3. fasea. Foroan eztabaidak sortzea.

«Foroa» atalean, dozente batek hari bat irekiko du ikasleek haien burua aurkeztu eta elkarrekin hitz egiteko aukera izan dezaten.



Tutoriala: [TwinSpace-ko foroak](#)

## PRAKTIKAN JARTZEA

### 1. fasea. TwinSpace ezagutu eta gure burua aurkeztuko dugu.

Irakasleak TwinSpace-ko atalak erakutsiko dizkie ikasleei. Jarduera gauzatzeko erabilgarrienak izango diren tresnak adostuko dira.

Ikasleek haien profila editatu eta abatar bat gehituko dute ([www.creatuavatar.com](http://www.creatuavatar.com) edo antzekoa).

Abatarrak erabiltzaile bati ematen zaion aurpegia eta gorputza irudikatzen ditu. Abatarraren funtzioa gorputzen duen pertsona irudikatzea da.

Irakasleek ikasleak nazioarteko talde mistoetan banatuko dituzte, halako moduz non oreka egongo den herrialde desberdinak, bi sexuak eta kide bakoitzaren hezkuntza-premiak kontuan hartuta.

Aldi berean, irakasleek nazioarteko talde bakoitzarentzat eztabaida-hari bana sortuko dute Foroan; talde bakoitzak identifikatuko dituen izena aukeratuko dute, adibidez, gustuko duten abeslari rapero batena.

Irakasleek TwinSpace-n orri bat sortuko dute. Bertan, ikasleek taldekatzea islatuko duen taula bat txertatuko dute, ikasleek ikaskide bakoitza zein taldetan dagoen jakin dezaten.

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)

Ikasleek haien burua aurkeztuko dute «foroa» atalean haien nazioarteko taldearentzat berariaz sortu den harian. Haien izena, kirolei, animaliei eta janariari buruzko gustuak adieraziko dituzte. Gainerako kideak agurtu eta haiekin hitz egingo dute jardueraren komunikazio-hizkuntzan.



Foroan idatzitako aurkezpenaren adibidea

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)

## 2. fasea. Online segurtasunari eta ziberjazarpenari buruz ikasiko dugu

Irakasleak aditu bat gonbidatuko du ikasgelara, Interneti eta online segurtasunari buruzko hitzaldi bat eman eta ziberjazarpenari buruz hitz egin dezan.

Irakaslea Poliziarekin edo Guardia Zibilarekin harremanetan jar daiteke Barne Ministerioak antolatzen duen [Ikastetxeetan eta Inguruneetan Bizikidetzeta eta Segurtasuna Hobetzeko Plan Zuzentzailearen](#) bidez.



Guardia Zibileko agente batek emandako hitzaldiaren adibidea



Tresna: [Ikastetxeetan eta Inguruneetan Bizikidetzeta eta Segurtasuna Hobetzeko Plan Zuzentzailea](#)

Edo [INCIBERen Cibercooperante](#) webgunea bisita dezake eta egun bat zehaztu aditu batek hitzaldi bat eman dezan.



Tresna: [INCIBERen Cibercooperante](#)

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)

### 3. fasea. Errimatzen duten mezuak sortu eta audioan grabatuko ditugu.


Ikasleek ziberjazarpenaren aurkako mezuak sortuko dituzte. Horretarako, nazioarteko taldeetan, bi azpi-taldetan banatuko dira: mezuaren hasiera sortuko dutenak eta lehenengo zatiarekin errimatzen amaituko dutenak. Foroaren harietan, lehenik eta behin, mezuen lehen zatiaz arduratzen direnek idatziko dute, eta bigarren zatiaz arduratzen direnek esaldiaren amaierarekin erantzungo diete, errimatuz.

Adibidez: <<Gonbidatu zure lagunak taldera, guztiok dugu atsegin lagunak izatea, zuri aurrena>>

Talde guztiek mezuak idatzi ondoren, ikasleek audioan grabatuko dituzte, irakasleen laguntzarekin, audio horiek rap audio bihurtzen dituen mugikorreko aplikazio bat erabiliz: <<<https://play.google.com/store/apps/details?id=com.smule.autorap&hl=es&q=US>>> edo antzeko bat.

Oharra: arazoren bat sor daiteke aplikazio horretako audioak zuzenean deskargatzean. Hala bada, beste gailu mugikor batekin erreproduzitu eta grabatzea eta mp3an gordetzea gomendatzen da.

Dozentek audio guztiak TwinSpace-ko Materialak atalera igoko dituzte.



TwinSpace-n audioak gordetzea

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka \(kendu\)](#)

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)


#### 4. fasea. Ziberjazarpenaren kontrako pankarta kolaboratiboak sortuko ditugu ( 2 saio).

Nazioarteko talde bakoitzeko ikasleek pankarta bat egingo dute, 3. fasean nazioarteko beste talde batek alde aurretik sortutako mezuarekin.

Adibidez: 1. nazioarteko taldeko kideek pankarta bat egingo dute 2. nazioarteko taldeko kideek sortutako mezu batekin, eta horrela hurrenez hurren.

Ekipo bakoitzak sortutako mezuak foroaren harietan partekatuko dira idatziz; audio-formatuko mezuak TwinSpace-ko Materialak atalean gordeko dira.

Irakasleak argazki bat edo pantaila-argazki bat egingo die pankartei eta haien egileei, eta irudi guztiak TwinSpace-ko Materialak atalera igoko dira.



Pankarten irudian TwinSpace-n gordetzea

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka \(kendu\)](#)

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)

## 5. fasea. Bideo kolaboratiboa sortuko dugu.

Irakasleek bideo kolaboratibo bat sortuko dute ikasleen irudiekin, pankartekin eta rap-errimak dituzten audioekin.

Horretarako, bideoak editatzeko edozein tresna digital erabil daiteke, esate baterako:

<https://clipchamp.com/es/video-editor/>

<https://www.flexclip.com/es/video-editor.html>

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)

## 6. fasea. Azken bideokonferentzia.

Ikastetxe kideetako irakasleek eta ikasleek bideokonferentzia batean parte hartuko dute. Bideokonferentzia hori TwinSpace-k eskaintzen duen tresna erabiliz antolatu dute, eta sortutako rap abestia rap abestuko dute. Horretarako, aldez aurretik, ikastetxe kide bakoitzak letra osoa prestatuko dute eta ikasgelan entseatuko dute.

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)

## EBALUAZIOA.

Irakasleek jardueraren galdetegi-ebaluazioa prestatuko dute ikasleentzat, Quizizz, Kahoot edo antzeko tresna digital bat erabiliz, ziberjazarpenari buruz zer ikasi duten egiaztatzeko.



Tresnak: [www.quizizz.com](http://www.quizizz.com) eta <http://www.kahoot.com/>



Ikasleak ebaluazioa egiten

Irakasleek bideokonferentzia-saio bat egingo dute jarduera horren ebaluazioa egiteko eta ikasleen ebaluazioaren emaitzak aztertzeko. Horrela hobekuntza-proposamenak egin eta jardueran izandako zailtasunak hautemateko aukera izango dute.

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)

## JAKITERA EMATEA

Lankidetzako azken produktua, bideo musikala, ikastetxe kide guztien webgunean eta sare sozialetan zabalduko da, gainerako hezkuntza-komunitatearekin partekatzeko.

Aukerarik izanez gero, Youtube-ko kanalean eta bertako edo autonomia-erkidegoko telebista-kanaletan ere haren berri eman daiteke, irismen handiagoa izan baitezake.

TwinSpace

[TwinSpace-rako esteka](#)

**TwinSpace-ko tresnak / kanpoko 2.0 tresnak:**



TwinSpace: orriak, materialak, foroa, lineako bilerak eta partaideak.



Beste tresna batzuk:

Ikasleen abatarra sortzeko tresna: [www.creatuavatar.com](http://www.creatuavatar.com)

Rap abestiak sortzeko tresna: [Auto rap](#)

Bideoak sortzeko tresna: <https://clipchamp.com/es/video-editor/> eta  
<https://www.flexclip.com/es/video-editor.html>

Informazioa bilatzeko tresna: [www.google.es](http://www.google.es)

Ikasleak ebaluatzeko tresna: [www.quizizz.com](http://www.quizizz.com) eta [www.kahoot.com](http://www.kahoot.com)